



Ajuntament de
Castelló



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Asociación
MATIZ



Fundación General
Universidad de La Laguna

JENDAURREAN AURKEZTEA ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO PROIEKTUEN GARAPENARI APLIKATUTAKO KULTURARTEKO GAITASUNEN GAINEN ESKULIBURUA

(Bilbo, 2021eko urtarrilaren 13a).- Bilbo, Castellò de la Plana eta Donostiako udalerriek eta Tenerifeko uharteko kabildoek arrakastaz amaitu dute “Administrazio publikoko proiektuen garapenari aplikatutako kulturarteko gaitasunak” izeneko proiektua, zeina Europako Kontseiluaren Intercultural Cities programak finantzatu baitu, 2020ko deialdian.

Parte hartu duten tokiko administrazioekin batera lanean jardun den zientzia-taldea honako hauek osatua izan da: MATIZ Bilboko elkarte eta Tenerifeko La Laguna Unibertsitatea; bestalde, proiektuaren zabalkunderako proiektu grafikoa, marrazkiak eta animazioak La Laguna Unibertsitateko diseinu, ikusizko pentsamendu eta zerbitzu grafikoaren arloko BISAGRA Transferentzia Unitateak garatu ditu.

Ekimen hau abiarazi da Kulturarteko Hirien Espainiako Sareak (Red Española de Ciudades Interculturales, RECI) zenbait beharrian agertu zituelako Esku hartzeko 2020ko Planean, eta haiei erantzutearren, plan horretan jasotzen baita egokia litzatekeela beharrezkoak diren ezagutzak eskuratzeko tresna praktikoak lantzea eta garatzea, hiri batzuek eta besteek dauzkaten beharrezkoen erantzutearren.

Administrazio publikoko langileen kulturarteko gaitasunak garatzea gakoa da aurrera egiteko kulturartekotasunean indartsuak eta sendoak izango diren hiriak eta lurraldeak eraikitzeko bidean. Administrazioaren zerbitzura kulturartekotasunean gaitutako langileak arituz gero, hobetu egiten dira udal zerbitzuak, erabiltzaileak areago gogobetetzen dira, eta konfiantza eta kidetasun sentimendu handiagoa sortzen laguntzen da.

Alabaina, azterlan eta tresna praktiko gutxi sortu dira kulturarteko gaitasunak garatzearen inguruan toki administrazioetako langile tekniko eta kargu politikoentzako. Prozesu horren emaitza moduan, gaur, Gida bat eta bideo tutorial bat ematen dira argitara, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez (aurki valentzieraz ere bai). Era berean, 2021ean zehar, lurralde bakoitzean ikastaro bat eskainiko zaie parte hartzen duten administrazio publikoetan lan egiten duten langileei beren-beregi; izan ere, 10 orduko on line formazio-modulu baten proposamen bat ere landu da. Formazio hori RECI sarea osatzen duten gainerako hiriei ere zabaldu ahalko zaie.

Ekimen hau, bestalde, Garapen Jasangarriko Helburuen artean dago, eta 2030 Agendaren etorkizuneko ikuspegi bera du, zeinak “mundu zuzenago, berdintasunezkoago, toleranteago, irekiago eta gai sozialetan inklusiboago” baterantz



eraman nahi baikaitu, non “jatorri etnikoari eta kultur dibertsitateari begirunea gordeko baitzaie eta non aukera berdintasuna izango baita, gizakiaren ahalmenak osoki gauzatu ahal izateko eta oparotasun konpartitu bat lortzen laguntzeko.”

lazko maiatzean hasi ziren 4 administrazio publikoen eta zientzia-taldeko bi entitateen arteko koordinazio lanak. Prozesua hiru fasetan gauzatu da, zeintzuek parte hartzeko era bateko eta besteko metodologiak ekarri baitituzte.

LEHENENGO FASEA: LAGINKETA KUALITATIBOA ETA EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Lehenengo fasean, laginketa bat egin zen Administrazioaren arlo batzuetako eta besteetako profesionalen artean, jakitearren zer zalantza izaten dituzten kulturartekotasunari buruzko ekimen eraginkorrak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko orduan.

Lau toki-korporazio horietan era bateko eta besteko arloetan lan egiten duten 65 profesionalak parte hartu zuten galdetegiari erantzunez, eta asmoa zen jakitea zein neurritan heltzen dioten kulturartekotasunari beren eginkizunak betetzean. Zientzia-taldeak ustiatu zituen bildutako datuak. Horrenbesterekin, hiru faseetako lehena burutu zen toki-administrazioaren zerbitzuko profesionalen artean kulturarteko gaitasunak garatzeko proiektuan.

Proiektuaren lehenengo fase horretan, halaber, tokiko korporazioetako langileek beren esperientzia eta ikuspegiak azaldu ahal izan zituzten beren administrazioek sustatzen edo finantzatzen dituzten eta kulturartekotasunaren ikuspuntutik gaitasuna duten ekimenen diseinuaz, egikaritzeaz eta ebaluatzeaz.

Era horretan, galdetegiaren emaitzek dagoeneko erakusten dute lurraldeko kultur dibertsitateak, askotan, eskaera berriak dakartzala lan egiten duten sailalara edo zerbitzuetara. Era berean, interesa agertu zuten prestakuntza eta formazioa lortzeko “kultur jokamolde batzuetarako eta besteetarako baliabideak eta zerbitzuak egokitzearren”: zerbitzu eta baliabide horiek dira, esaterako, konfiantza sortzen jakitea, informazioa ematea, aldatu beharreko egoera interpretatzen jakitea edo, halaber, ezagutzea zer balio diren nagusi edo zeintzuk diren igurikipenak". Izan ere, galdetegiari erantzuten parte hartu zutenen artean askok uste dute ez daukatela behar beste kulturarteko gaitasun.

BIGARREN FASEA: ESKULIBURUA IDAZTEA ETA ALDERATZEA

Ondoren, galdera horiei proiektuaren bigarren fasean eman zaie konponbidea: bigarren fase horretan, proiektu praktikoak lantzeko eskuliburu praktiko bat idatzi behar zen, administrazio publikoetako langileei erakustearren zeintzuk diren kontuan hartu beharreko gakoak kulturarteko ikuspegi bat duten ekimenak diseinatzeko prozesuan. Eskuliburu hori, gainera, toki administrazioen sektore-eskumen batzuetarako eta besteetarako izango da baliagarri, bai eta entitate pribatuen proposamenak ebaluatzeko ere, haiek Udalaren diru-laguntzetarako edo lizitazio publikoetarako deialdietan parte hartzen dutenean.

Eskuliburuaren xede nagusia da administrazio publikoen zerbitzuko langileei gida bat eskaintzea eta kulturarteko gaitasunaren kontzeptua praktikara ekartzea administrazio publikoek gauzatzen dituzten proiektuen fase batzuetan eta besteetan (asmatzea, diseinatzea/formulatzea, egikaritzea eta ebaluatzea). Hori dela-eta, beharrezkoa da atal teoriko sendo bat sortzea kultur dibertsitatearen eta immigrazioaren kudeaketa-ereduen gainean, hartara kulturartekotasunaren maistreaming edo joera nagusietan kokatu ahal izateko edo kulturartekotasuna zeharkakotasunez berenganatu ahal izateko (1.etik 6.era arteko kapituluak).

Bestalde, 7.etik 11.era arteko kapituluetan, ikuspegia da proiektuaren ziklo osoan heldu ahal izatea kulturartekotasunaren paradigmatari ikuspuntu praktiko batetik, eta, gainera, gako oso interesgarriak ematen dira, kulturartekotasuna kontratazio publikoaren bidez sustatzearen inguruan edo gizarte entitateentzako edo beste kolektibo batzuentzako laguntza publikoetarako lerroen inguruan.

Bigarren gai-atal horrek ez du bakarrik tokiko esperientzia kopuru handi samar bat eskaintzen, beren-beregi ere heltzen dio erantzukizun politikoa duten pertsonen kulturarteko bizikidetzaren sustatzeko duten zeregin erabakigarriari. Konpromiso eta borondate politikoa ezinbestekoak dira kulturartekotasunean biziko diren gizarteak sustatzeko. Are eta gehiago, gaineratu ahal da ezen lidergo politiko ausart bat behar dela, berrikuntza maila handiak ekar ditzakeena kudeaketara, etorkizuneko gizartearen beharrezko erantzuteko. Arduradun politikoen parte hartzea eta konpromisoa funtsezkoak dira. Haien uste sendoa administrazioaren barruan hedatuko da, eta guztiz eragingarria ere izango da kanpoko eragileei begira, hala nola hedabideak, gizartearen, ekonomiaren edo kulturaren arloetako eragile nabarmenak, eta, horrez gain, dibertsitateari buruz jarrera publiko positiboak gara daitezen eta iraun dezaten sustatuko dute.

HIRUGARREN FASEA: FORMAZIO MODULUA ETA BIDEOA

Lehenengo bi faseetan sorrarazitako ezagutzak ekarri du hirugarren fasean formazio praktikoko modulu bat prestatu ahal izatea, aukera emango duena tokiko korporazioekin lotura duten pertsonen arian-arian barnera ditzaten ezinbestekoak diren osagaiak sektore publikoak sustatutako edozein proiektu kulturartekotasunaren ikuspegia aintzat har dezan. Eskuliburuko ideia garrantzitsuenak bideoan jaso dira, irudi bizidunak dituen infografia batean, eta, beraren bidez, proiektuaren eta haren xedeen zabalkundea egingo da, eta agerira ekarriko.

Informazio gehiago:

<http://www.ciudadesinterculturales.com/>

- Gaztelaniazko eskuliburua: <http://www.ciudadesinterculturales.com/wp-content/uploads/2020/12/ANNEX-II-2020-12-18-Handbook-SPANISH.pdf>
- Euskarazko eskuliburua: <http://www.ciudadesinterculturales.com/wp-content/uploads/2020/12/kulturarteko-gaitasunen-eskuliburua.pdf>
- Ingeleseko eskuliburua: <http://www.ciudadesinterculturales.com/wp-content/uploads/2020/12/Guide-to-intercultural-competencies-in-public-administrations.pdf>
-

Bideo-infografia Ciudades Interculturales youtube kanalean:

<https://youtu.be/c7PtMt6pwsM>

Intercultural Cities-en web orria.

www.coe.int/interculturalcities



Ajuntament de
Castelló



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Asociación
MATIZ



Fundación General
Universidad de La Laguna

PRESENTACIÓN PÚBLICA DEL MANUAL DE COMPETENCIAS INTERCULTURALES APLICADAS AL DESARROLLO DE PROYECTOS DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

(Bilbao, 13 de enero de 2021). - Los municipios de Bilbao, Castelló de la Plana, Donostia-San Sebastián y el Cabildo de la Isla de Tenerife han concluido con éxito el proyecto “Competencias interculturales aplicadas al desarrollo de proyectos de administración pública” financiado por el programa Intercultural Cities del Consejo de Europa en la convocatoria de 2020.

El equipo científico que ha trabajado con las administraciones locales implicadas ha estado compuesto por la Asociación bilbaina MATIZ y la Universidad de La Laguna en Tenerife, y el desarrollo del proyecto gráfico, ilustraciones y animaciones que apoyan la difusión del proyecto ha estado a cargo de BISAGRA, la Unidad de Transferencia en diseño, pensamiento visual y facilitación gráfica de la Universidad de La Laguna.

Se trata de una iniciativa puesta en marcha para dar respuesta a la necesidad planteada por la Red Española de Ciudades Interculturales (RECI) en su Plan anual de intervención 2020, donde figura la idoneidad de actuar para la implementación de herramientas prácticas que permitan responder a las necesidades que plantean las ciudades diversas.

El desarrollo de las competencias interculturales del personal de la administración pública es un elemento clave para seguir avanzando en la construcción de ciudades y territorios interculturales fuertes. Un personal intercultural competente al servicio de la administración pública favorecerá la mejora de los servicios municipales, aumentará la satisfacción de los usuarios y contribuirá a una mayor confianza y sentido de pertenencia.

Sin embargo, son escasos los estudios e instrumentos prácticos generados en relación con el desarrollo de competencias interculturales para el personal técnico y político al servicio de las administraciones locales. Como resultado del proceso hoy se publica una Guía y el video tutorial que están disponibles euskera, castellano e inglés (próximamente también en valenciano) Asimismo, a lo largo de 2021, en cada territorio tendrá lugar la realización de un curso específicamente dirigido al personal que trabaja en las administraciones públicas implicadas puesto que también se ha desarrollado una propuesta de módulo formativo on line de 10 horas. Esta formación podrá ser extensible al resto de ciudades que componen la RECI.



Esta iniciativa se encuentra enmarcada en los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) y comparte la visión de futuro de la Agenda 2030 que nos transporta a «un mundo justo, equitativo, tolerante, abierto y socialmente inclusivo» en el que se respete «el origen étnico y la diversidad cultural y en el que exista igualdad de oportunidades para que pueda realizarse plenamente el potencial humano y para contribuir a una prosperidad compartida».

En el mes de mayo del pasado año comenzaron los trabajos de coordinación entre las 4 administraciones públicas y las dos entidades del equipo científico. El proceso se ha desarrollado en tres fases que han implicado diversas metodologías participativas.

PRIMERA FASE: MUESTREO CUALITATIVO Y DIAGNÓSTICO DE SITUACIÓN

En la primera fase se llevó a cabo un muestreo entre las y los profesiones de diversas áreas de la Administración para discernir cuáles son sus dudas a la hora de diseñar, implantar y evaluar iniciativas interculturalmente competentes.

Un total de 65 profesionales de las diversas áreas de las cuatro corporaciones locales participaron en el desarrollo de un cuestionario para conocer en qué medida se está abordando la interculturalidad en el ejercicio de sus funciones. El equipo científico realizó la explotación de los datos recogidos. Con ello se completó la primera de las tres fases del proyecto para desarrollar competencias interculturales entre las y los profesiones al servicio de las administraciones locales.

Esta primera fase del proyecto sirvió también para que el personal de las corporaciones locales manifestara su experiencia y sus puntos de vista en relación con el diseño, ejecución y evaluación de iniciativas interculturalmente competentes promovidas o financiadas por las administraciones.

De este modo, los resultados del cuestionario avanzaron que la diversidad cultural del territorio está generando, en muchos casos, nuevas demandas en el servicio o área en la que trabaja. Asimismo, se señaló interés en obtener preparación y formación para “la adaptación de los recursos y servicios a las distintas pautas culturales, tales como generar confianza, transmitir información, interpretar la situación a modificar, o también, qué valores imperan y qué expectativas se tienen”, ya que un elevado porcentaje de las participantes en el cuestionario, siente que no cuentan con las competencias interculturales suficientes.

SEGUNDA FASE: REDACCIÓN Y CONTRASTE DEL MANUAL

A posteriori, estas cuestiones han sido resueltas en la segunda fase del proyecto, consistente en la redacción de un manual práctico para la elaboración de proyectos destinado a ofrecer a la plantilla de las administraciones públicas las claves a tener en cuenta en el proceso de diseño de iniciativas con perspectiva intercultural. Este manual servirá, además, a diferentes ámbitos de competencia sectorial de las administraciones locales, así como a la evaluación de las propuestas de entidades privadas que concurren en convocatorias de subvenciones municipales o licitaciones públicas.

El Manual tiene como fin primordial orientar al personal al servicio de la administración pública y facilitar la transposición práctica del concepto de competencia intercultural en las diferentes fases de los proyectos que se desarrollan por las administraciones públicas (ideación, diseño/formulación, ejecución y evaluación). Para ello es preciso propiciar un sólido apartado teórico sobre modelos de gestión de la diversidad cultural y la inmigración que nos permitan ir aterrizando en el denominado mainstreaming intercultural o la incorporación transversal de la interculturalidad (capítulos 1 a 6).

Los capítulos 7 a 11 centran su mirada en un abordaje práctico del paradigma intercultural en el ciclo completo del proyecto, y además introducen claves de sumo interés relativas a la promoción de la interculturalidad mediante la contratación pública y las líneas de ayudas públicas destinadas a entidades sociales y otros colectivos.

Este segundo bloque temático no solo ofrece un buen número de experiencias locales inspiradoras, sino que además aborda específicamente el crucial papel de las personas con responsabilidad política en la promoción de la convivencia intercultural. El compromiso y la voluntad política es condición sine qua non para promover sociedades interculturales. Es más, se podría sin duda añadir, que requiere de un liderazgo local político valiente y capaz de imbuir altas dosis de innovación en su gestión, para ser capaz de dar respuesta a las necesidades de la sociedad futura. El compromiso e implicación de las y los responsables políticos es clave. Su convicción no sólo se extenderá a nivel interno de la administración, sino que tendrá un impacto clave en agentes externos como los medios de comunicación, actores relevantes en el ámbito social, económico o cultural, fomentando el desarrollo y la persistencia de actitudes públicas positivas frente a la diversidad.

TERCERA FASE: MÓDULO FORMATIVO Y VIDEO

El conocimiento generado en las dos primeras fases ha propiciado que en la tercera fase se diseñe un módulo formativo de carácter práctico que permitirá a las personas vinculadas a las corporaciones locales interiorizar de un modo progresivo aquellos elementos indispensables para que cualquier proyecto que se promueva desde el sector público contemple la perspectiva intercultural. Las ideas más relevantes del Manual han sido recogidas en una infografía animada en vídeo, que contribuirá a la difusión y visibilización del proyecto y sus objetivos.

Más información:

<http://www.ciudadesinterculturales.com/>

- Manual en castellano: <http://www.ciudadesinterculturales.com/wp-content/uploads/2020/12/ANNEX-II-2020-12-18-Handbook-SPANISH.pdf>
- Manual en euskera: <http://www.ciudadesinterculturales.com/wp-content/uploads/2020/12/kulturarteko-gaitasunen-eskuliburua.pdf>
- Manual en inglés: <http://www.ciudadesinterculturales.com/wp-content/uploads/2020/12/Guide-to-intercultural-competencies-in-public-administrations.pdf>

Video-infografía en Canal youtube Ciudades Interculturales:

<https://youtu.be/c7PtMt6pwsM>

Web de Intercultural Cities

www.coe.int/interculturalcities